

[...]KO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2020ko uztailearen 21ean, Europako Kontseiluak "NextGeneration EU" (EBko hurrengo belaunaldia) izeneko aparteko tresna bat adostu zuen, 750.000 milioi eurokoa, aldi baterako, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, estatu kideekin koordinatutako erantzun europarra bermatuz.

NextGeneration EUren barruan bolumen handieneko tresnetako bat Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoa da (BEM), 672.500 milioi eurokoa. BEMen helburuak garatzeko funtsezko atal gisa, irailaren 30ean BOEn irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua argitaratu zen. Horren bidez, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (BEEP) egituratu da. Plan horren arabera, administrazio publikoek hainbat neurri hartu behar dituzte, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea, haien konfigurazioarekin batera. Horrez gain, planean aurreikusitako neurrien barruan (eraldaketak/inbertsioak) dauden proiektuak eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, jarraitu eta kontrolatzera bideratutako kudeaketa zehaztu behar dute.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Araudiaren 22. artikulua zenbait betebeharrak ezartzen dizkio Espainiako Estatuari, EBren finantza-interesak babeste aldera. Horretarako, iruzurraren aurkako neurrien plan bat egituratzeko betebeharrak ezartzen dio, EBren finantza-interesak babesteko helburuarekin.

Betebeharrak hori erdieste aldera, Aginduaren 6. artikuluan ("iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea"), BEEP neurriak betearazten parte hartzen duten erakunde erabakitzaile edo betearazle guztiek Iruzurraren Aurkako Neurrien Plan bat eduki beharko dute. Horren helburua da bermatzea eta aitortzea, dagokion jarduera-eremuan, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

"Iruzur" terminoak engainua erabiltzea esan nahi du, irabazi pertsonalak lortzeko erakunde publiko bati lotutako pertsonarentzat edo hirugarren batentzat, edo galerak beste pertsona batentzat. "Ustelkeria" irabazi pertsonalak lortzeko botere-abusua da. "Interes-gatazka" dago pertsona baten eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzeko arriskuan dagoenean, familiarekin, kidesun politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo EBko funts-eskatzaila batekin adibidez, partekatutako beste edozein interes-motarekin zerikusia duten arazoengatik. Iruzurrak, ustelkeriak eta interes-gatazkak kasuen kudeaketa txarrak ondorio finantzarioak izateaz gain, kalte larria egiten diote baliabide publikoei eta, beraz, EBko funtsak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko ardura duen erakundearen ospeari.

Udalak iruzurraren eta ustelkeriaren aurka dagoela adierazi du erabat, eta kalitate juridiko, etiko eta moral handia mantentzeko konpromisoa hartu du, bai eta osotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta zintzotasun printzipioen arabera jokatzekoa ere. Gainera, bere eginkizunak betetzean iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa berretsi du, eta interes-gatazkak goiz eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazi du.

Udalak iruzurraren aurkako politika bat onartu du, edozein iruzur-jardueratarako disuasio-efektua izango duen betetze-kultura sustatzeko, eta, horrela, jarduera horiek modu proportzionatuan, eraginkorrean, egokian eta denboran zehar egokituz prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazarri ahal izateko.

Horrez gain, [EBko] Udalak konpromisoa hartzen du kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat ezartzeko, EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espedienteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra ziurtatzeko, BEEP planean aurreikusitako helburuak bete ditzan. Horren ondorioz, Udalak konpromiso instituzionala hartu du 2022ko martxoaren 30a baino lehen Iruzuraren aurkako Neurrien Plana onartzeko.

Zehazki, konpromisoa hartzen du, besteak beste, epe horren barruan jarduketa hauek egiteko:

1. Arriskuen analisisa eta ebaluazioa.
2. Kode Etikoa idaztea.
3. Kanal etikoaren protokoloa idaztea.
4. Interes-gatazkak prebenitzeko politika idaztea.
5. Eragozpenen eta oparien politika idaztea.
6. Iruzuraren prebentzioari buruzko prestakuntza eta kontzientziazioa.
7. Iruzurra Kontrolatzeko Organoa izendatzea.

Udalak barneko jakinarazpen-kanalen bidez antzeman daitezkeen irregulartasunak edo iruzurraren eta ustelkeriaren susmoak salatuko ditu, eta Iruzuraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalarekin eta gainerako agintari eta erakunde publikoekin, Estatuko segurtasun-kidegoekin, autonomikoekin edo foralekin lankidetzan arituko da une oro.